


MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2020KO MARTXOA

Euskal AEko azalera handi eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,7 igo dira 2020ko martxoan

Elikagaien salmentak % 18,5 hazi dira, eta gainerako produktuenak, berriz, % 35,2 jaitsi

Euskal AEko merkataritza-azalera handi eta elikadura-kate handietako salmentek % 1,7ko urte arteko igoera izan dute prezio konstanteetan 2020ko martxoan, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek egindako datuen arabera. 2020ko otsailarekin alderatuta, salmentak % 1,8 jaitsi dira, urtaroen eraginik gabe.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hileko bigarren hamabostaldian **COVID-19aren** pandemia globalari aurre egiteko konfinamenduko eta establezimenduak partzialki edo osorik ixteko ezohiko neurriek emaitza oso desberdina eragin dute elikadura-salmentetan (jarduera kritikoa eta funtsezkoa) eta gainerako artikuluenetan (jarduera oso murriztua). Hala, azalera handietako eta elikadura-kate handietako elikagaien salmentek urtetik urterako % 18,5eko igoera islatzen badute ere, gainerako artikuluei dagozkienek % 35,2ko jaitsiera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Lurraldeka, guztietan izan da hazkunderik: Araban % 2,5, Bizkaian % 0,3 eta Gipuzkoan % 3,6, iazko hilabete berarekin alderatuta; hori guztia, prezio konstanteetan eta egutegi-eraginik gabe.

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko otsaila), elikadura-salmentak, prezio konstanteetan eta urtaroen eraginik gabe, % 14,8 igo dira, eta gainerako produktuenak, berriz, % 34,8 jaitsi.

2020ko urtariletik martxora bitarteko metatutan, Merkataritza-azalera handi eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak % 1,4ko igoera izan du, elikaduran gertatu den hazkundearen ondorioz (% 7,7), gainerako produktuetan % 11,0ko jaitsiera erregistratu baita. Hala ere, bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: Arabak % 1,1 egin du gora urteko metatutan, Bizkaia % 0,3 eta Gipuzkoak % 3,3, hori guztia prezio konstanteetan eta lan-egutegiaren termino homogeenetan.

Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan enplegatutako langileen kopurua % 0,5 jaitsi da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 2,3 aurreko hilabetearekin alderatuta, urtaroen eraginik gabe. 2020ko hiru hilabete horietako metatutan, enplegatuen kopurua % 1,0 hazi da, 2019ko aldi berarekin alderatuta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Martxoa. 2020

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,7	-1,8	1,4
Araba/Álava	2,5	0,1	1,1
Bizkaia	0,3	-1,9	0,3
Gipuzkoa	3,6	-2,4	3,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	18,5	14,8	7,7
Beste produktuak	-35,2	-34,8	-11,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-0,5	-2,3	1,0

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62